

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Frantziako ikasle eta ikuskaritzako langileak Nafarroako ikastetxeetara bisitak egiten ari dira Bordeleko Errektoretzarekin sinatutako hitzarmenari esker

Tuterako Benjamin BHIko ikasleak Frantzian izan dira DBH 3. mailako ikasleen arteko truke programari esker, eta orain bost astez egonaldia egingo duten Frantziako ikasleen bisita jaso dute

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Tuterako Benjamin BHIko ikasleak Frantziako DBH 3. mailako ikasleak dituzte bisitan egunotan. Ikasleok bost asteko egonaldia egingo dute Nafarroan Hezkuntza Departamentuak eta Bordeleko Errektoretzaren arteko hitzarmenari esker. Bisita honen baitan gainera, Frantziako ikuskaritza saileko adituak ere Nafarroara gerturatu dira BACHIBAC



Ikuskatzaileak Tuterako Benjamin BHIin bisitan.

egitasmoa ezagutu eta erkidegoko hainbat ikastetxeetara bistiak egitera.

Frantziako ikasleen bisita Tuterako Benjamin BHIko ikasleak Frantziara egindako egonaldiaren ostean ari da gauzatzen. Truke hauek 2018-2019 ikasturteko lehen hiruhilekoan egiten dira eta bost asteko egonaldietan egoera ezberdinetan murgiltzeko aukera dute ikasleek: familia, eskola zein gizartean, hizkuntza eta kulturaren ezagutzan sakonduz, garapen pertsonalerako beharrezko gaitasunak eskuratuz, beste familia batekin biziz eta beste herrialde bateko ikastetxe bateko egunerokotasuna ezagutuz. Gainera, egitasmo honekin, bi herrialdeetako ikastetxeek, beraien irakasleen bitartez, etorkizunean egin ditzaketen elkarlanetarako harremanak sortzen dira, bai eTwinning programaren baitan truketarako proiektuak garatzeko edota Erasmus+ egitasmoaren barruan elkarteak sortzeko.

Hizkuntzan eta kulturaren murgiltzeko truke hauek Bordeleko Akademiako Errektoretzaren kudeaketa eremuko antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxeekin egiten dira.

BACHIBAC

Bikoen elkarlaneren baitan, eta Bordeleko Akademiako Errektoretzak eskatuta, Tuterako BHIin Frantziako ikasleak egiten ari diren egonaldia,

Aurélie Dongeux eta Nicolas Godbert ikuskariak Nafarroara azaroaren 5etik 9ra bitartean egiten ari diren behaketa mintegiarekin batera egin da, zeinak beraien bisita Tuteran dauden ikasle frantsesak bisitatzeko probestu duten.

Frantziako ikuskarien interes nagusia Nafarroako hezkuntza sistema behatzea da. Gainera, Nafarroako Foru Erkidegoan aurrera eramaten ari diren BACHIBAC naziobiko diplomaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutzea da eta hori bera aztertuko dute Frantzian ezarri ahal izateko. Hala, ikuskariak Bachibac zentroak bisitatuko dituzte (Iruñeko San Cernin eta Tuterako Benjamin BHI).

Gainera, beraien egonaldian zehar Eunate BHIko frantseseko elebidun atala bisitatuko dute. Iruñeko Vázquez Mella HLHIP ere bisitatuko dute, frantsesaren irakaspenerako hizkuntza aniztasun programa duen ikastetxea. Gainera, bilerak hitzartu dituzte Hezkuntza Departamentuko Ikuskaritza sailarekin irakasleen hasierako eta formazio jarraia aztertzeko.



Trukean parte hartzen ari diren ikasleen argazkia.